

Donostian, 2025eko abuztuaren 6an.

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Elkarrekin Donostia udal-talde mistoaren ordezkoko bozeramaile Arantza Gonzalez Garciak Hondakinak Biltzeko Tasa arautzeko zerga ordenantzaren gaineko arau proposamen hau dakar:

ARAU PROPOSAMENA

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 9. artikulua araberak, udalerriek, beren ahalmenez baliatuz eta Foru Arauen eta Nazioarteko Itunen esparruan, zerga-onurak eman ahal izango dituzte beraiei dagozkien tributuetan, euren aurrekontuen kontura beren gain hartuz.

Alde horretatik, Hondakinak biltzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen zerga ordenantza hobari batzuk jartzen ditu biohondakina bereizten duten pertsonentzat, bai hartarako propio diren edukiontzia bidez bereizten dutenentzat, bai eta komunitateko edo banakako konpostatzearen bidez bereizten dutenentzat.

Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ere jasotzen du gaikako bilketa sustatzea, Donostian indarrean diren neurrien antzekoen bidez. Gainera, hondakinen hierarkia kontuan izanda, aurren-aurrenekoa prebentzioa da; hondakin gutxiago sortzea, alegia.

Horiek horrela, biohondakina bereizteagatik diren hobarien ehunekoak handitu egin behar direla uste dugu. Honela:

ERANSKINA

Zerga kuotak

2. Hondakinak biltzeko tasaren kuota zuzentzeko aplikatuko diren ehunekoak; konposta egiten parte hartu edo biohondakina hartarako edukiontzira botatzeagatik:

- Biohondakina bereizita botata parte hartzea: dena delako etxebizitzari dagokion kuota finkoaren % 30.
- Konpostatze komunitarioan parte hartzea: dena delako etxebizitzari dagokion kuota finkoaren % 40.
- Konpostatze indibidualean parte hartzea: dena delako etxebizitzari dagokion kuota finkoaren % 55.

Arantza Gonzalez Garcia

Elkarrekin Donostia talde mistoaren ordezkoko bozeramailea